

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Naturan hezi, osasuntsu bizi

### Egilea

Maddi Arreche Oronoz

### Gradua

Haur Hezkuntza

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 3. Osasuna eta ongizatea,
- 4. Kalitatezko hezkuntza,
- 10. Desberdintasunak murriztea,
- 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak,
- 13. Klimaren aldeko ekintza,
- 15. Lehorreko ekosistemetakako bizitza,
- 16. Bakea; justizia eta instituzio sendoak

### Laburpena

Gizakia naturarengandik nabarmen urrundu da azken hamarkadetan, nahiz eta historikoki eremu naturalek onura ugari ekarri izan. Hala, naturarekin harremana sustatzen duten eskola-kopuruak gora egin du azken urteotan. Nazioarteko eredu arrakastatsuenei jarraiki, baso-eskola proiektua da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Kutxa Fundazioak sustatzen duen ekimena. Eskola ugari, aitzitik, lan-metodo hau haien hezkuntza-proiektuan txertatu nahi badu ere, hura abian jartzerako garaian zalantza eta zailtasun anitzekin egiten du topo, barne-dokumentuetan hutsune nabariak izanik. Lan honetan Zurriola Ikastolak baso-eskola ekimenarekin bat egiteko burutu duen prozesua deskribatzen da eta ikasleen garapen integrala bermatzen lagun dezaketen baliabideak proposatzen dira. Baso-eskola proiektuari egiten zaizkion ekarpenak hezkuntza arloan baliagarriak izatea espero da. Hitz-gakoak: natura, baso-eskola, ebaluazioa, esku-hartzea, garapen integrala.

## 2030 Agendaren GIH Ekarpinak

Kulturaren eta naturaren arteko harremana gero eta aldenduago daude. Izan ere, egungo gizarteak duen ingurumen-kontzientzia zein baliabide naturalengandik gizakiaren garapenean, ongizatean eta osasunean eskuratzen diren onurak oso murrizak dira. Hori dela eta, 1950. hamarkada amaieraz geroztik Suedian eta Danimarkan bereziki ingurune naturaletan antolatzen hasi ziren jarduera hezitzaileak oinarritzat hartu eta haiengandik lor daitezkeen aberastasunez baliatzearen aldeko apustua egin beharra dago. Era horretan, naturan kokatzen diren eskolen kopurua ugaritu egin da azken urteotan, naturaz baliatuz haurren garapen integrala bermatze aldera. Euskal Autonomia Erkidegoan Kutxa Fundazioak sustaturiko baso-eskola proiektua da ikastetxeek ipar izan dutena. Izan ere, izpide dugun hezkuntza-eredu honek onura esanguratsuak dakartza ikasleen garapen kognitiboan, psikologikoan, emozionalean, motorrean zein sozialean, besteak beste. Horren ondorioz, 2030 Agendan nabarmendu daitezkeen kalitatezko hezkuntza, osasuna eta ongizatea eta klimaren edota zehazki naturaren aldeko ekintzaren bidez ekoizpen eta kontsumo arduratsuak eta lehorreko ekosistemetak bizitzaren zaintza hertsiki loturik daudelaren kontzientzia piztea bilatzen du "Naturan hezi, osasuntsu bizi" Gradu Amaierako Lanak. Arian ere, etorkizun oparoa lortu ahal izateak, justizia, ekitatea eta errespetua bezalako baloreetan funtsatzen dena, hain zuzen, orainaldian lan egitea eskatzen du. Dena den, baso-eskola bezalako ekimenen bidez aipaturiko helburu hezigarriak eta haurren garapen integrala bermatzera iritsi ahal izateko, era arduratsu, sistematiko eta koherentean lan egitea ezinbestekoa da, esku-artearen dugun lanak bezalako ekarpen eta proposamenen bidez lortzea bilatzen dena.